

GETXO / Ipuin kontalariak kontu kontari

Euskal Herriko ipuin kontalariak adin guztietarako ipuinak kontatuko dituzte

A.Ugalde

Getxoko (Bizkaia) Algorta eta Areetan lehenengo Getxokontari jaialdia izango da asteburuan: hogeitabat ipuin kontalarik jardungo dute kontu kontari. Umeentzat, helduentzat, euskaraz, gaztelaniaz, leku itxietan eta leku irekietan izango dira.

Pedro Ruiz Kandelen Argipean elkarteko kidea da, eta kontalari lanetan ibiliko da bere elkartearekin. Ruizek jakinarazi duenez, hasiera baten kontularien topagune izateko asmoz jaio zen jaialdiaren ideia. Euskal Herriko kontalariak gutxitan elkartzen direla esan du: Apur bat surrealista da bertoko kontulariak etxetik gertu ikusi ez eta Guadalajaran, Kolonbian edo Kanariar uharteetan topo egitea. Besteak beste, Antton Irusta, Pello Añorga, Virginia Imaz eta Kandelen Argipean taldea izango dira.

Mozorrotuta, kontalari batzuk euren ipuinetako protagonista izango dira. Beste hainbatek euren gorputza eta ahotsa baino ez dute erabiliko irudimenaren munduan murgilarazteko. Ipuin klasikoak, norberak asmatutakoak, amamak umetan kontatutakoak... denetariko kontuak, denentzat.

Zer: Ipuin kontalariak

Noiz: Irailaren 22tik 24ra.

Lekua: Algortan eta Areetan.